



**GALDAMESKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GALDAMES
(Bizkaia)**



Udal Aterpetxean Zerbitzuak Emateagatik Ezarritako Tasa Arautzen Duen Ordenantza Fiskalaren aldaketa jendaurrean ikusgai egoteko legezko epea igaro da erreklamaziorik aurkeztu barik; horrenbestez, Ordenantza Fiskal horren aldaketa behin betiko onetsita geratu da, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5ekoak, bere 17. artikuluan eta Toki Ogasunen 9/2005 Foru Arauak, abenduaren 16koak, bere 16. artikuluan ezartzen dutena betetzeko. Artikulu horietan agintzen dena betetzeko, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen dira erabaki hori eta Ordenantza Fiskal horren aldaketaren testu osoa. Aldaketa indarrean sartuko da 2009ko urtarrilaren 1etik hasita.

**UDAL ATERPETXEAN ZERBITZUAK EMATEAGATIK EZARRITAKO TASA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA I.**

XEDAPEN OROKORRAK

1.artikulua

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 21.4.ñ) artikuluz bat etorritz, Udal honek tasa eskatzen du Txabarriko udal aterpetxean egoteagatik, beti ere Ordenantza honen baldintzen arabera.

2. artikulua

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da. .

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Tasaren zerga egitate da udal aterpetxean egoteagatik zerbitzua ematea.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

4. artikulua

Tasa honetako subjektu pasiboak izango dira, zergadun gisa, Txabarriko udal aterpetxean egoteagatik zerbitzua eskatu edo horien onura nahiz eragina jasotzen duten pertsona fisiko nahiz juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34.3 artikuluan aipatutako erakundeak.

IV. ZERGAREN KUOTA

5. artikulua

Tasa honen kuota 4,50 eurokoa izango da pertsonako eta eguneko; gutxienez bi egun egon eta 22 pertsonako gutxieneko taldea izatea eskatzen da.

V. SORTZAPENA

6. artikulua

Jarduera edo espedientea hasten duen eskabidea aurkeztean sortuko da tasa. Jarduera ez da gauzatuko ez eta espedientea izapidetuko, bidezko ordainketa egin ez bada.



**GALDAMESKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GALDAMES
(Bizkaia)**



VI. KUDEAKETA

7. artikulua

Tasa autolikidazioaren araubidean eskatuko da.

8. artikulua

Erretserba egiteko, aste bat lehenago, eskabidearekin batera NANaren fotokopia aurkeztu beharko da udal bulegoetan, faxez edo posta elektronikoz. Behin erretserba baieztatuta, tasa eta 60,00 euroko fidantza sartuko da. Fidantza egonaldia amaitu eta gero itzuliko da, beti ere kalterik sortu ez bada eta kalteen balorazioaren egitearen kalterik gabe. Kalte horiek egonaldiaren eskatzailearen eta onuradunen kargura izango da, eta, adingabeak badira, gurasoen eta tutoreen kargura.

9. artikulua

Erretserbak eskabideen aurkezpenaren hurrenkeraren arabera egingo dira.

10. artikulua

Tasak eta fidantza ordaindu eta gero, egonaldia idatziz baimenduko da.

11. artikulua

Tasa ordaindu behar duenak berari egoztekoak diren kausengatik egonaldia bertan behera uzteko eskatzen badu, tasa itzultzeko inskripzio eguna baino bi egun lehenago eskatu beharko du, bestela utzitako fidantza galduko du. Behardunari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik, ezin denean egonaldia burutu, dagokion zenbatekoaren itzulketa egingo da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2009ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Galdamesen, 2008ko abenduaren 22an.-Alkatea, Carlos Avellanal Villanueva